



2023

**HONDAKINEN EKOBAROMETROA
EMAITZAREN TXOSTENA
Dokumentu exekutiboa
2023KO OTSAILA**



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
2. Helburuak	4
3. Fitxa teknikoa	5
4. Inkestaren emaitzak	6
5. Kontuan hartzeko	42



1. AURKEZPENA

Hiri Hondakinen Behatokia indarrean dagoen **Arabako hiri hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko planean (2017-2030)** edo, laburbilduz, PRU2030ean **15. ekintza** gisa identifikatutako tresna da.

Hiri hondakinen kudeaketarekin erlazionatutako alderdien informazio-, ezagutza- eta jarraipen-tresna iraunkorra da, baita agente interesdun guztientzako topalekua ere, arlo horri buruzko informazio tekniko eta akademikoa hedatzea errazteko.

Helburu hori lortzeko, Hondakinen urteko inbentarioaren, Ezaugarrien azterketen eta PRU2030 Hondakinen planaren jarraipen eta ebaluazioaren elementuen moduko **erreferentzia-figura integratzaile** gisa funtzionatzen du.

2015etik etxe-hondakinen inbentarioa egiten da. Udal hondakinen kudeaketaren errealitatea urtero kuantifikatu eta aztertzen duen tresna da, eta, horri esker, PRU2030ean identifikatutako hondakinen frakzioen gainean jarraipen-adierazle kuantitatibo eta kualitatiboak kalkula daitezke.

Horrela, Arabako lurralde historikoko hondakinen kudeaketaren errealitateari buruzko ezaguera areagotu eta bide horretan aurrera egin nahi izan dugu. Horretarako, gainerako kuadrillen multzoarekin elkarlanean arituz, Arabako Foru Aldundiaren Hondakinen Behatokiaren Urteroko ekobarometroa sortzea ahalbidetu duen galdeketa sortu dugu.



2. HELBURUAK

Behatokiaren bidez, Arabako lurralde historikoko **hondakinen sorkuntza eta kudeaketaren errealitate ezberdinei buruzko informazioa bildu** nahi dugu.

Horri esker, hondakinen sorkuntza murrizten eta birziklapen-tasak sustatu eta hobetzen lagunduko duten **politika publikoak sortzea erraztuko duten datuak jaso** ahal izango ditugu.

Bestalde, Europako Batzordeak ekonomia zirkularrari buruz ezarri dituen neurriekin bat etorriko den ekimena da, ekonomia linealaren «Behin erabiltzeko» modeloa murriztuko duten ekintzak sustatuz eta hondakinak baliabide baliotsu gisa hartuko diren birziklapen-modeloa lortuz.

Gainera, Arabak gainerako lurraldeekiko duen posizionamendua hobetu ahal izango du, eta, hortaz, alderaketak burutu eta etorkizunerako helburuak ezarri ahal izango ditu.

Ondoren, **2023ko urtarrilean** zehar burututako **ekobarometroaren lehen edizioan** jasotako emaitzak aurkeztuko ditugu.



3. FITXA TEKNIKOA

Ekobarometroa sortzeko **1210** inkesta burutu dira, hau da, **ereduaren errorea +-% 2,83koa da**, eta konfiantza-maila, berriz, % 95ekoa.

Inkesta 2023ko urtarrilean zehar burutu egin zen, batez ere telefonoz, eta, beharrezkoa izan denean, kaleko inkesten bidez osatu da.

Eredua **Arabako biztanleriaren irizpide demografiko** ezberdinen arabera banatu da. Besteak beste, adin, sexu eta bizileku-eremuaren araberako tarteetan bereizita, ahalik eta emaitza fidagarrienak lortzeko helburuarekin. Hona hemen ereduaren banaketa:

JATORRIA/HERRIA	
Vitoria-Gasteiz	% 49,8
Aiara	% 8,5
Añana	% 8,4
Gorbeialdea	% 8,4
Arabako Lautada	% 8,3
Arabako Mendialdea	% 8,3
Guardia-Arabako Errioxa	% 8,3

SEXUA	
Gizonezkoa	% 49,9
Emakumezkoa	% 50,1

ADINA	
35 urte arte	% 20,7
36 eta 50 urte artean	% 28,3
51 eta 64 urte artean	% 26,0
65 urte baino gehiago	% 25,0



4. INKESTAREN EMAITZAK



0 BLOKEA: INKESTATUTAKO PERTSONEN PROFILA

Ikasketa-maila	
Ez daki irakurtzen ez idazten	% 0,2
Lehen mailako ikasketak, amaitu gabe	% 3,4
Lehen mailako ikasketak edo baliokideak	% 21,0
Bigarren hezkuntza, batxilergoa	% 18,8
Erdi-mailako ikasketa profesionalak edo baliokideak	% 10,8
Goi-mailako ikasketa profesionalak edo baliokideak	% 17,4
Unibertsitate ikasketak edo baliokideak	% 28,4
Adingabeak etxean	
Bai	% 37,3
Ez	% 62,7

Lanbidea	
Soldatako langilea	% 47,6
Langile autonomoa	% 11,2
Langabea, lanaren bila	% 7,8
Erretiroduna	% 21,7
Etxeko zereginak	% 8,3
Ikaslea	% 1,7
Beste lanbide bat (zehaztu)	% 1,7

Elkarrizketatuak zabor-tasa ordaintzen du	
Bai	% 89,0
Ez	% 11,0

Etxean bizi diren pertsonen kopurua	
1 pertsona	% 14,9
2 pertsona	% 34,3
3 eta 4 pertsona artean	% 44,5
Egoitza mota	
80 m2 baino gutxiagoko etxebizitza	% 28,4
80 m2 baino gehiagoko etxebizitza	% 38,3
Etxe atxikia	% 6,2
Etxea, txalet berezia	% 26,9

Eredua modu honetan banatzen da: Ikasketen mailari dagokionez, **inkestaturako pertsonen laurden batek unibertsitate-ikasketak edo ikasketa baliokideak** dauzka, eta proportzio berak **erdi- edo goi-mailako ikasketa profesionalak** ditu.

Inkestaturako pertsonen % 59ak lan egiten du, eta, horietako pertsona gehienek, besteren kontura egiten duten lan. % 7,8 bakarrik dago aktiboki lanaren bila. Zabor-tasen ordaintetari dagokionez, berriz, **inkestaturako pertsonen ia % 90ak ordaintzen du.**

Inkestaturako etxeekin erlazionatuta, % 15 soilik dira pertsona bakarra bizi diren etxeak; guztizkoaren herena seme-alaba adingabeekin bizi da.


Etxebizitza motari dagokionez, **inkestaturako hiru pertsonetatik bi bizi dira pisu batean, eta % 33 etxe edo etxe atxiki batean edo txalet batean bizi da.**



0 BLOKEA: INKESTATUTAKO PERTSONEN PROFILA

Inkestatutako pertsonen Interneteko konektibitateari eta eskuragarri dituzten euskarri digitalei dagokienez, salbuespenak kenduz, guztiak daukate telefono mugikorra, ordenagailua edo bestelako gailuak Interneteko konexioarekin.

Batezbesteko gisa, inkestatutako pertsonen **etxeetan Interneteko konexioa duten 2 gailu daude.**



1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

Kapitulu honetan **inkestaturako pertsonen duten ingurumenaren egoerarekiko kezka eta horien birziklapen-ohituren** analisia jaso dugu.


Datuen irakurketa errazteko, gehien kasuan sexu eta adinaren arabera bereizita eta segmentatuta eskaintzen dira, eta analisi espezifikoak egiteko, berriz, gainerako kuadrillen arabera agertzen dira. Bestalde, biztanleen profil ezberdinen arabera segmentazioak ere eskaintzen dira, kasu bakoitzeko elementu adierazgarriak kontuan hartuz.



1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

1. Orokorrean, zein da zure kezka-maila ingurumenari eta bere zaintzari dagokienez?

Gutzizko oinarria: 1210



Batez bestekoa, 1-5

Guztira	3,9
Emakumezkoa	4,0
Gizonezkoa	3,9


Inkestatutako 4 pertsonetatik 3k diote nahiko edo oso kezkatuta daudela ingurumenaren egoera eta zaintzagaratik. Generoaren araberrako analisisa eginez gero, emakumeek gizonek baino kezka eta sentsibilitate handiagoa dituzte ingurumenaren egoera eta zaintzari dagokionez.



1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

1. Orokorrean, zein da zure kezka-maila ingurumenari eta bere zaintzari dagokienez?

Gutzizko oinarria: 1210



Batez bestekoa, 1-5	
Gutzira	3,9
35 urte arte	3,8
36 eta 50 urte artean	3,9
51 eta 64 urte artean	4,0
65 urte baino gehiago	3,9


Adinaren arabera, ingurumenarekiko kezka-mailarik altuena **51 eta 64 urte arteko pertsonen** dute. **Aipagarria da 35 urte baino gutxiagoko pertsonen kezka murrizketa**, horietako **% 67 soilik** sentitzen baita nahiko edo oso kezkatuta.



1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

1. Orokorrean, zein da zure kezka-maila ingurumenari eta bere zaintzari dagokienez?

Gutzizko oinarria: 1210



Batez bestekoa, 1-5


Guztira	3,9
Vitoria-Gasteiz	3,9
Gainerako kuadrillak	3,9

Vitoria-Gasteiz eta gainerako kuadrillen arteko konparaketa egiten badugu, **ezberdintasun handirik ez dagoela ikus dezakegu.**



1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

2. «Hondakinen bereizketa eta kudeaketak zerikusi handia du bizi-kalitatearekin». Nola sentitzen zara adierazpen horri dagokionez? Guztizko oinarria: 1210




Batez bestekoa, 1-5	
Guztira	4,1
Emakumezkoa	4,2
Gizonezkoa	4,1

Inkestatutako pertsonen % 80a baino gehiago ados edo oso ados dago hondakinen bereizketa eta kudeaketak bizi-kalitatearekin zerikusi handia duela dioten adierazpenarekin.



1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

2. «Hondakinen bereizketa eta kudeaketak zerikusi handia du bizi-kalitatearekin». Nola sentitzen zara adierazpen horri dagokionez? Guztizko oinarria: 1210



■ % 84,3
 ■ % 80,8
 ■ % 83,1
 ■ % 87,0
 ■ % 85,4

Batez bestekoa, 1-5

Guztira	4,1
35 urte arte	3,9
36 eta 50 urte artean	4,1
51 eta 64 urte artean	4,2
65 urte baino gehiago	4,3

Inkestatutako pertsonen adina kontuan hartuz, badirudi **biztanleriaren adina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gehiago uste dutela hondakinen bereizketa eta kudeaketak bizi-kalitatearekin zerikusi handia duela.**




1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

3. Ezagutzen al duzu Arabako Foru Aldundiaren Hondakinen Behatokia?

Guztizko oinarria: 1210

Baiezko erantzunak



Ez dago Hondakinen Behatokia ezagutzen duen jende askorik, izan ere, % 18ak soilik ezagutzen du. Hala ere, Behatokiaren ezagutza pixka bat handiagoa da Arabako Lurralde Historikoko hiri eremuan, nahiz eta estatistikoki oso nabarmena ez izan.

Hondakinen arloko informazio eta ezagutzarako tresna da. Datuak, zenbat hondakin sortzen ditugun, horiekin zer egiten den eta abar ezagutzuz, kontzienteago izan gaitzake eta gure ohiturak aldatzen, zerbitzu berriak eskatzen... lagun gaitzake. Horrela, zerbitzua hobetu ahal izango dugu, eraginkorragoa eginez eta gure lurraldean bizi diren pertsonen bizitza-kalitatea zuzenean hobetuz




1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

4. Ba al dakizu zer egiten den hondakinekin ontzietan utzi eta gero?

Guztizko oinarria: 1210

Baiezko erantzunak



Lau pertsonetatik ia hiruk diote edukiontzietako hondakinen helmuga ezagutzen dutela. Hala ere, ezagutza hori baxuagoa da 35 urte baino gutxiago dituzten pertsonen artean.


Edukiontzietan botatako hondakin guztiak hondakin mota bakoitzerako bereizketa-planta batera eramaten dira. Instalazio askotan, materialak tratatzeko prestatzen dira.

Hondakin nahastuen kasuan, esaterako, Hondar frakziokoak, helburua materiala zabortegian utzi aurretik prestatzea da. Gaikako bilketen kasuan, berriz (hala nola papera, kartoia, beira edo ontziak), berrerabiltzeko prestatzen dira, normalean birziklapenaren bidez.



1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

5. Honako arazo hauetatik, zein 3 dira, zure iritziz, zure inguruko edo eskualdeko ingurumen-arazorik nagusienak? Guztizko oinarria: 1210



Hona hemen gehien aipatu diren ingurumen-arazoak: **klima-aldaketa/klima-krisia, etxeko zabor eta hondakinen bilketa** eta, azkenik, inguruneko zikinkeria. Gizon eta emakumeen arteko banaketa antzekoa da.




1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

5. Honako arazo hauetatik, zein 3 dira, zure iritziz, zure inguruko edo eskualdeko ingurumen-arazorik nagusienak? Guztizko oinarria: 1210

Orokorrean, klima-aldaketa kolektibo guztiek gehien aipatu duten arazoa da. Hala ere, ñabardurak daude bizilekuaren arabera.

Zentzu horretan, **Vitoria-Gasteiztik kanpo kezka gutxiago dago lehorketaren eta uren kutsaduraren inguru, baina arazo handiagoa dago zikinkeriarekin eta kutsadura akustikoarekin hiriburuan bizi direnen ustez.**



1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

5. Honako arazo hauetatik, zein 3 dira, zure iritziz, zure inguruko edo eskualdeko ingurumen-arazorik nagusienak? Guztizko oinarria: 1210


	Guztira	35 urte arte	36 eta 50 urte artean	51 eta 64 urte artean	65 urte baino gehiago
Klima-aldaketa/klima-krisia	% 40,3	% 33,2	% 44,6	% 42,2	% 39,4
Zabor eta etxeko hondakinen bilketa	% 30,5	% 34,8	% 39,1	% 29,2	% 18,5
Zikinkeria ingurunean	% 20,7	% 22,8	% 20,7	% 21,3	% 18,2
Lehortea	% 19,8	% 11,6	% 18,1	% 25,1	% 22,8
Uren kutsadura	% 17,7	% 11,2	% 20,1	% 21,0	% 16,9
Airearen kutsadura	% 15,0	% 23,2	% 13,4	% 12,7	% 12,6
Elikagaiak alferrik galtzea	% 14,3	% 30,0	% 15,2	% 11,1	% 3,6
Kutsadura akustikoa	% 10,0	% 14,4	% 11,7	% 8,3	% 6,3
Baso-suteak	% 9,5	% 5,6	% 8,7	% 12,1	% 10,9
Biodibertsitate-galera	% 6,5	% 5,6	% 7,9	% 6,7	% 5,6
Argi-kutsadura	% 4,3	% 9,2	% 3,8	% 3,2	% 2,0
Eremu berde gutxi	% 0,9	% 2,0	% 0,9	% 0,3	% 0,7
Beste batzuk	% 14,0	% 7,2	% 11,1	% 13,7	% 23,2

Adinaren arabera ingurumenarekin lotutako arazo nagusien banaketa antzekoa da kolektibo ezberdinetan. Hala ere, **adin gehiagoko pertsonen artean** kezka apur bat gehiago dago **lehortearen** inguru; **gazteen artean, berriz, elikagaiak alferrik galtzea da arazorik aipagarriena.**



1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

6. Zein da zure interes-maila ingurumenarekin zerikusia duten albisteei dagokienez? Guztizko oinarria: 1210



■ % 65,6
■ % 68,0
■ % 63,2

Batez bestekoa, 1-5


Guztira	3,8
Emakumezkoa	3,8
Gizonezkoa	3,7

Ingurumenarekin lotutako albisteei eragindako interesari dagokionez, **3 pertsonatik 2k daukate interesa horiengan, eta ez dago ezberdintasun nabarmenik sexuen artean.**



1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

6. Zein da zure interes-maila ingurumenarekin zerikusia duten albisteei dagokienez? Guztizko oinarria: 1210



■ % 65,6
■ % 49,2
■ % 66,8
■ % 74,0
■ % 69,2


Batez bestekoa	
Guztira	3,8
35 urte arte	3,4
36 eta 50 urte artean	3,8
51 eta 64 urte artean	3,9
65 urte baino gehiago	3,8

Adinaren araberako analisisan, **35 urte baino gutxiagoko sektoreak duen kezka-maila baxuagoa aipatu behar da; 51 eta 64 urte arteko pertsonen kezka, ordea, nahiko handia da.**



1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

7. Zure ustez, zer garrantzi du etxean hondakinak bereizteak ingurumena zaintzeari dagokionez? Guztizko oinarria: 1210




Inkestatutako ia pertsona guztientzat da garrantzitsua edo oso garrantzitsua etxean hondakinak bereiztea, pertsonen sexua zeinahi ere den.



1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

7. Zure ustez, zer garrantzi du etxean hondakinak bereizteak ingurumena zaintzeari dagokionez? Guztizko oinarria: 1210




Batez bestekoa	
Guztira	4,5
35 urte arte	4,4
36 eta 50 urte artean	4,5
51 eta 64 urte artean	4,5
65 urte baino gehiago	4,6

Inkestatutako pertsona ia guztientzat da garrantzitsua edo oso garrantzitsua hondakinak bereiztea, eta inkestatutako en adina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da esleitzen dioten garrantzia.



1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

8. Zure ohiturei eta etxeko hondakinen bereizketari dagokienez, zein maiztasunarekin bereizten dituzu honako hondakin hauek? Guztizko oinarria: 1210



Hona hemen gehien birziklatzen diren hondakinak: beira, papera eta plastikoa. Gutxien birziklatzen direnak, berriz, inausketa-hondakinak dira. Hala ere, nahiz eta guztizko datuetan gutxien birziklatzen diren hondakin gisa agertzen diren, arrazoiak pisuetan bizi diren pertsonen kasuan hondakin hori sortzen ez dela da; **etxeetan bizi diren inkestatutako ia pertsona guztiek, izan ere, hondakin horiek birziklatzen dituztela diote.** Dena den, aipagarria da **hondakin organikoen birziklapen-mailen arteko ezberdintasuna, inkestatutako pertsonen % 78ak soilik diolako normalean birziklatzen dituela.**


Inkestatutako kop.:
377

■ Maiz ■ Batzuetan ■ Inoiz ez edo ia inoiz ez



1 BLOKEA: INGURUMENAREKIKO KEZKA ETA BIRZIKLAPEN-OHITURAK

9. Honako arrazoi hauetatik, zure ustez, zein dira zure etxean hondakinak ez bereizteko dituzuen arrazoi nagusiak? Adierazi 3 ohikoenak edo gehien identifikatzen zaren 3 arrazoiak. Guztizko oinarria: 1210




Ez birziklatzeko arrazoi nagusi gisa hartzen diren arrazoiak dagokienez, **inkestaturako pertsonak ardura-gabezia aitortzen dute.** Bigarren eta hirugarren postuetan, lehen postutik oso urrun, **leku- eta kontzientziazio-falta daude.** Aipagarria da Gainerako kuadrilletan ardurari ematen zaion garrantzia hiriburuan ematen zaionarekin alderatzen badugu, **non arrazoiak atomizazio handiagoa aurkezten duten eta,** neurri handiagoan, arrazoiak neurri kanpoko eragileei esleitzen zaizkien.



2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

10. Zein da zure poztasun-maila zure inguruko hondakinen bilketa-zerbitzuari dagokionez?

Guztizko oinarria: 1210



Batez bestekoa	
Guztira	3,7
Emakumezkoa	3,7
Gizonezkoa	3,6
Vitoria-Gasteiz	3,6
Gainerako kuadrillak	3,8


Inkestatutako **hiru pertsonetatik bi nahiko edo oso pozik** daude euren eremuko hondakinen bilketa-zerbitzua-ekin, eta poztasun-maila hori oso antzekoa da gizonen eta emakumeen artean. Hala ere, Vitoria-Gasteiztik kanpo dagoen poztasuna nabarmenki handiagoa da.



2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

10. Zein da zure poztasun-maila zure inguruko hondakinen bilketa-zerbitzuari dagokionez?

Gutzizko oinarria: 1210




Batez bestekoa	
Gutzira	3,7
35 urte arte	3,6
36 eta 50 urte artean	3,5
51 eta 64 urte artean	3,6
65 urte baino gehiago	4,0

Adinaren arabera egindako analisi batean, **65 urte baino gehiagoko pertsonak biztanleriaren multzoa baino pozago daude bilketa-zerbitzuarekin.**



2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

11. Non eskuratzen duzu etxean hondakinak bereizi eta dagokien lekuan uzteari buruzko informazioa? Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu. Guztizko oinarria: 1210



Biztanleriak behar bezala egiteko informazioa jasotzeko erabiltzen dituen kanalei dagokienez, lehenik eta behin zentzua eta logika aurki ditzakegu.

Bigarren postuan **postontzien bidezko bidalketa dago, Gainerako kuadrilletan bizi direnen artean lehenetsun handiagoa duen metodoa.**


Hala ere, **Interneten garrantzia handiagoa da Vitoria-Gasteizen bizi direnentzat.**

Adinari dagokionez, gazteak dira informazio birtuala edukitzea nahiago dutenak. Dena den, biztanleriaren adina handiagoa izan ahala, informazioa paperean eta postontzian jasotzea nahiago da.



2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK


11. Non eskuratzen duzu etxean hondakinak bereizi eta dagokien lekuan uzteari buruzko informazioa? Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu. Guztizko oinarria: 1210



2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

12. Hondakinak modu eraginkorren bereizi eta botatzeko nahikoa informazio duzula uste duzu? Guztizko oinarria: 1210

Baiezko erantzunak



Inkestatutako pertsonen % 90aren ustez, **informazio nahikoa eskaintzen da hondakinak modu eraginkorren bereizteko. Izan ere, pertzepzio hori are handiagoa da 65 urte baino gehiagoko pertsonen artean.**




2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

13. InfoRecikla gure etxeetan sortzen ditugun hondakinak hobeto kudeatzeko informazioa eskaintzen duen Arabako Foru Aldundiaren tresna da. Ezagutzen al duzu? Guztizko oinarria: 1210

Baiezko erantzunak

Honakoen moduko gaiei buruzko informazioa eskaintzen du: hondakinak non utzi, puntu berde mugikorra auzo eta herrietatik noiz pasatzen den, zergatik den hain garrantzitsua hondakinak ondo bereiztea...




% 8ak soilik ezagutzen du InfoRecikla. Ehunekoa pixka bat altuagoa da zabor-tasa ordaintzen duten pertsonen artean, baina ezin da konparaketa zehatza egin, tasa ordaintzen ez duten pertsonen eredu-oinarria oso urria baita. Bestalde, ezin da ezberdintasunik hauteman bizileku edo adinaren arabera, eta ezagutza-maila oso txikia da kasu guztietan.



2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

14. Nola gustatuko litzazuke Administrazioak zurekin harremanetan jartzea gai honekin zerikusia duten berritasun, aldaketa eta albiste garrantzitsuei buruz jakinarazteko? Hautatu gehienez 3 bide.
Guztizko oinarria: 1210




Posta inkestaturako pertsonen ia erdiak nahiago duen kanala da, eta altuagoa da Arabako gainerako kuadrilletan bizi direnen artean, **Vitoria-Gasteizko kuadrillan** bizi den biztanleriarekin konparatuz gero, azken horiek informazioa **posta elektronikoz** jasotzea nahiago baitute.



2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

14. Nola gustatuko litzaizuke Administrazioak zurekin harremanetan jartzea gai honekin zerikusia duten berritasun, aldaketa eta albiste garrantzitsuei buruz jakinarazteko? Hautatu gehienez 3 bide.
Guztizko oinarria: 1210



Biztanleriarik gazteenak informazioa mezu elektronikoz eta web-orrialdeak kontsultatuz jasotzea nahiago du.



2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

15. Hondakinen kudeaketari dagokionez, zein informazio mota nahiago duzu jasotzea, bere erabilgarritasuna eta garrantzia kontuan hartuz? 1 garrantzirik ez – 10 garrantzirik handiena Guztizko oinarria: 1210

Informaziorik interesgarriena **hondakinak EZ kudeatzeak** ingurumenean duen eraginarekin, ez bereiztean duen kostu ekonomikoarekin eta prozesuan eraginkorragoak izateko aukerarekin erlazionatuta dago.


Ezberdintasun nabarmena dago gizonen eta emakumeen hondakinen bilketa- eta kudeaketa-zerbitzuaren kostuari ematen dioten garrantzian, izan ere, altuagoa da gizonen artean (7,0) emakumeen artean (6,6) baino.

Gazteei dagokienez, informazio interesgarri guztien artean aurkitutako batezbestekoaren batezbestekoa nabarmentzen da. Zentzu horretan, **orokorrean puntuazio altuagoa dute informazio eta interes mota guztiei dagokienez 65 urte baino gehiagoko adinekoekin konparatuta, azken horiek interes apalagoa baitute.**

Proposatutako informazioaren tipologia	Guztira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	35 urte arte	36 eta 50 urte artean	51 eta 64 urte artean	65 urte baino gehiago	Gainerako kuadrillak	Vitoria-Gasteiz
Hondakinak ondo ez kudeatzeak ingurumenean duen kostua edo eragina.	7,5	7,6	7,4	8,1	7,8	7,5	6,6	7,3	7,7
Etxean hondakinak modu eraginkorrean ez bereizteak ekonomikoki duen kostua.	7,2	7,3	7,1	7,6	7,4	7,3	6,4	7,1	7,3
Nola bildu eta bereizi hondakinak modu eraginkorragoan.	7,1	7,1	7,0	7,5	7,3	7,2	6,4	6,9	7,2
Nola egiten da hondakinek kudeaketa eta zergatik egiten da horrela.	6,9	6,9	6,9	7,3	7,3	7,1	5,9	6,6	7,1
Hondakinak bildu eta kudeatzeko zerbitzua ekonomikoki kostatzen zaiguna.	6,8	7,0	6,6	7,3	6,9	6,9	6,2	6,7	7,0
Non eta nola bidal ditzaket gai honi buruzko hobekuntza-kexak eta/edo -proposamenak.	6,8	6,7	6,9	7,3	7,2	7,1	5,7	6,6	7,1
Non eskura dezaket niregan eragina duten berritasunei buruzko informazioa.	6,8	6,7	6,9	7,4	7,0	7,0	5,7	6,6	7,0
Nola egiten da hau beste toki batzuetan. Jardunbide egokiak	6,3	6,4	6,2	6,6	6,6	6,6	5,4	6,3	6,3
Gai honi buruz antolatzen diren hitzaldiak eta jardunaldiak	5,9	5,9	5,9	6,2	6,0	6,1	5,2	5,8	6,0
Batez bestekoen batez bestekoa	6,81	6,84	6,76	7,25	7,05	6,97	5,94	6,65	6,96

2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

16. Hondakin-tasari dagokionez, normalean «zabor-tasa» gisa ezagutzen dena, egokia iruditzen al zaizu jasotzen dituzun zerbitzuetarako? Guztizko oinarria: 1210.




Orokorrean, inkestatutako pertsonen erdiak jasotzen duten zerbitzuaren tasa egokia dela uste du. Hala ere, aipagarria da lau pertsonetatik ia batek ez zekiela zer erantzun/ez zuela erantzun nahi edo ez dakiela zenbat ordaintzen duen.

Bestalde, baiezko erantzun gehiago egon dira Vitoria-Gasteiztik kanpo bizi direnen artean.



2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

16. Hondakin-tasari dagokionez, normalean «zabor-tasa» gisa ezagutzen dena, egokia iruditzen al zaizu jasotzen dituzun zerbitzuetarako? Guztizko oinarria: 1210.




Adinaren arabera datuek erakusten dutenez, adostasun handiagoa dago hondakinen kudeaketarekin adin gehieneko pertsonen artean.



2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

17. Ados egongo zinateke zabor-tasa zure etxean sortzen dituzuen hondakin kopuruaren eta hondakinak bereizten dituzuen moduaren arabera izango balitz? Beste modu batera esanda, ados egongo zinateke hondakin gutxiago sortzea eta hondakinak behar bezala bereiztea ekonomikoagoa? **Baiezko erantzunak**




Lau pertsonetatik ia hiru daude ados zabor-tasa sortutako hondakin kopuruarekin eta bereizteko moduarekin erlazionatzearekin. Ez dago ezberdintasun handirik kolektiboen artean, adinekoen kasuan salbu, ez baitaude hain ados ordaintzen duten tasa sortzen dutenarekin lotzearekin.



2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

19. Ondo irudituko litzazuke arduragabekeriagatik hondakinak leku ezegokietan eta/edo egokiak ez diren egunetan botatzen dituzten (hau da, hondakinak gaizki bereizten dituzten) pertsonen ekonomikoki zigortzea/isuntzea? Guztizko oinarria: 1210

Baiezko erantzunak




Orokorrean, jendea ados dago hondakinak leku ezegokietan botatzen dituzten pertsona edo erakundeei zigortzeko aukerarekin. Eraitza antzekoa da kolektibo guztietan.



2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

20. Zure ustez, zein neurritan dira eraginkorrak hondakin kudeaketa hobetzeko honako neurri hauek? 1 batere eraginkorra – 10 oso eraginkorra. Guztizko oinarria: 1210




Hondakinak leku edo egun desegokietan uzteagatik jar daitezkeen ereduzko zigorrak eta produktu iraunkorragoak kontsumituz eta gainontziratzeak zigortuz hondakin sorkuntza murriztea hondakin kudeaketa eta bereizketa hobetzeko neurri eraginkorragoak direla uste da.



2 BLOKEA: HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

20. Zure ustez, zein neurritan dira eraginkorrak hondakinen kudeaketa hobetzeko honako neurri hauek? 1 batere eraginkorra – 10 oso eraginkorra. Guztizko oinarria: 1210




Neurri ezberdinen eraginkortasunaren pertzepzioa handiagoa da **gazteen artean, orokorrean puntuazio hobekak ematen baitituzte kasu guztietan, beharbada beren ohiturak edo gizarte-ohiturak tresna desberdinen bidez aldatzeko irekiago daudelako.**



HERRITARREN FOROAK

21. Hondakinen kudeaketa eta hautaketa hobetzeari buruzko Herritarren foroetan parte hartzea interesatuko litzazuke, aldizka zein maiz? Guztizko oinarria: 1210

Baiezko erantzunak



Aipagarria da ere **bost pertsonatik bat hondakinen kudeaketa eta hautaketa hobetzeko lan egiten duten Herritarren foroetan parte hartzeko prest** dago, eta **gogo hori txikiagoa da 65 urte baino gehiagoko pertsonen artean.**



5. Kontuan hartzeko

Arabako Foru Aldundiaren Hondakinen Behatokiaren lehen edizio honetatik ateratako emaitzak azertu ondoren, etorkizuneko diagnostikoak egiteko kontuan hartu beharko diren elementu garrantzitsuak atera daitezke:

Lehenik eta behin, **biztanleria orokorrak ingurumenaren zaintzaren inguruan duen kezka handia nabarmendu** behar da. Hala ere, aipagarria da **kezka hori handiagoa dela belaunaldi helduenetan** eta txikiagoa dela gazteen artean.

Inkestatutako pertsonak **kezkatzen dituzten ingurumeneko arazo** nagusiei dagokienez, **klima-aldaketa, zaborren bilketa eta inguruneko zikinkeria dira nagusiak**. Dena den, nahiz eta orokorra izan, **landa-eremuko Gainerako kuadrillen eta adinekoen kasuan, lehortea eta uren zikinkeria** nabarmentzen dira ere elementu kezkagarri gisa.

Gazteen artean elikagaiak alferrik galtzea da era berezian nabarmentzen den elementu kezkagarria. Beste alde batetik, **hiriburuan bizi diren pertsonen kutsadura akustikoa** aipatzen dute.

Hondakinen bereizketa orokortuta dago biztanleriaren segmentu guztietan, eta inkestatutako pertsona ia guztiek diote normalean egiten dutela; ekintza hori hondakin organikoen kasuan egiten da gutxiago. **Ez bereizteko** arrazoi nagusiak batez ere **ardura- edo kontzientzia-gabezia** dira, eta elementu hori handiagoa da Gainerako kuadrilletatik erantzuten duten kasuan. **Vitoria-Gasteiztik erantzuten dutenentzat, berriz, arrazoi gehiago daude, eta kanpoko agenteekin daude lotuta, esaterako, etxean leku gutxi dutela... Hondakinak bereizteko modua, biztanleriaren erdiarentzat, logika edo zentzua erabiltzea da, eta, orokorrean, informazio nahikoa dutela diote.**

Badirudi **ekintzek ingurumenean dituzten ondorioak direla biztanleri orokorraren artean hondakinak bereizteko edo birziklatzeko tasak gehien areagotuko lituzkeen elementua**, baina **hondakinak behar bezala ez bereizteagatik hainbat neurri ere aplikatzea** lagungarria izango liteke ere.



5. Kontuan hartzeko

Beste alde batetik, **hondakinen kudeaketa ona edo txarra zigortu** edo saritzeari dagokionez, **adostasun orokorra** dago **hondakinak leku edo egun desegokietan uztea zigortzearen inguru**, eta badirudi adostasun nahikoa dagoela sorkuntzaren araberako ordainketari dagokionez, inkestatutako lau pertsonetatik ia hiruk egokia dela pentsatzen baitute.

Hondakinen bereizketari buruzko sentsibilizazioari edo informazioari dagokionez, informazioa **postaz** bidaltzea da Arabako biztanleen artean hedatuen edo orokortuen dagoen aukera, nahiz eta posta elektronikoaren bidez informazio interesgarria jasotzeko aukera gero eta garrantzitsuagoa den.

Hondakinen-kudeaketaz arduratzen diren Arabako Foru Aldundiaren erakundeek eta tresnek lortutako ospeari dagokionez, **inkestatutako bost pertsonetatik batek ezagutzen du Behatokia, eta InfoRecikla aplikazioa are ezezagunagoa da, % 8ko ospea besterik ez baitu.**

Azkenik, aipagarria da **hondakinen kudeaketarekin lotutako gaien inguruan herritarrek parte hartzeko foro bat sortzeak piztu duen interesa, profil eta bizileku ezberdinetako inkestatutako bost pertsonatik bat ados baitago ideia horrekin.**

